

XAKERAKO ARAU ESPEZIFIKOAK, 2020-2021 IKASTURTERAKOAK

1. Kirol diziplinaren txapelketa jardueren izena

Xakea Eskola Kirola

2. Kirol diziplinaren txapelketa jardueren joko araudiak

Txapelketa arau berberekin egingo da, baina jokalariek ez diote elkarri eskurik emango partidaren aurretik eta haren ondoren.

3. Kirol federazioek antolatutako txapelketetarako edo jardueretarako jarduketa arauak

Jokalarien artean tarte nahikoa dagoela bermatzeko, honako hau behar da:

*Joko mahaiak.- neurriak: 75 cm zabal eta 90 cm luze; ilaratan jarrita, 260 cm eta 230 cm-ko tarte librearekin gelaren hormaraino. Mahaiak banakakoak edo lotuak izan daitezke, eta taulen artean 115 cm utzi beharko dira.

*Taulak eta erlojuak: Taulak mahai ilaratan kokatuko dira, eta 115 cm utziko dira bataren eta bestearen artean. Ilara bakoitzeko lehen eta azken taulak mahaiaren bukaeratik 50 cm-ra egon beharko dira.

Erlojuak taula bakoitzaren alboan jarriko dira, denbora adierazten duen alde joko aretoaren alde beretik ikusteko moduan. Hau da, guztiak alde bererantz.

*Kontrol eta epaile mahaiak:

Mahaiak komeni den moduan jarri ahalko dira joko eremuan, baina gutxienez 200 cm-ko tarte utzi beharko da joko mahai hurbilenera.

Arduradunak joko mahaietan banatuta eseri behar dira, haien artean 1,5 m-ko tarte utzita.

4. Parte hartzen duten entitateetan egin beharreko entrenamenduetarako eta saioetarako jarduketa arauak.

Ez da ezer espezifikorik aurreikusten